

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Gaurtik aurrera, erabiltzeko moduan egongo da Nafarroako Ogasunaren PFEZren Aitorpenaren simulatzailea (intuitiboagoa)

Jada jakin daiteke alde zurretik aitorpenaren emaitza, baina, nolahi ere, ez da loteslea ez zergadunarentzat, ez Ogasunarentzat, eta ez du salbuesten aitorpen formal aurkeztetik

Nafarroako Zerga Ogasunak jada aktibatu du 2017ko diru-sarrerei dagokien Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren (PFEZ) aitorpenaren simulatzaile ofiziala.

Tresna berri hau intuitiboagoa da, eta aholkularitza pertsonalizatu osoagoa eskaintzen du. 2018ko udaberrian kanpaina formalki irekiko denean aurkeztuko den aitorpenaren gutxi gorabeherako emaitza emango die zergadunei, bereziki kenkariak aplikatzen zaizkienei, hala nola pentsio-planen edo etxebizitzari dagozkienak.

Aipatzekoa da proba honekin jakin daitekeela alde zurretik aitorpenaren emaitza, baina emaitza hori, nolahi ere, ez da loteslea ez zergadunarentzat, ez Ogasunarentzat, simulatzaileak ez baititu gordetzen sartutako datuak.


Tresna honen xedea da zergadunari gutxi gorabeherako emaitza bat ematea, baina horrek ez du salbuesten 2018ko bigarren hiruhilekoan kanpaina irekiko denean aitorpen formal aurkeztetik.

Simulatzaile hau modu anonimoan erabiliko da, eta ez du informazioa ematea beste xederik.

Aplikazioan sartzeko, ez da autentifikaziorik egin behar. 2017ko diru-sarrerei dagozkien datuak sartu ondoren, Errenta Aitorpenaren gutxi gorabeherako emaitza kalkulatu du sistemak, ekitaldi horretan indarrean egon den araudiari jarraikiz.

2016ko abenduan, 26.288 sarraldi erregistratu ziren aplikazioan errenta-aitorpenaren gutxi gorabeherako emaitza kalkulatzeko eta zerga-urtea amaitu baino lehen norberaren ekarpenak egokitzeko.

Asteartea, 2017.eko abenduak 5



Ogasunaren eraikinaren irudia